



---

## **AKTA**

Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillaren **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK** eginiko ohiko bilkurarena

### **2020ko uztailaren 15ekoa**

Cuadrilla de Ayala-Aiara Kuadrillaren egoitzan, Arespalditzan, **12:10ak** direnean, **ohiko bileran bildu dira, lehenengo deialdian**, Cuadrilla de Ayala-Aiarako Kuadrillako Tokiko Gobernu Batzordeko buru **Encina Castresana Astarloa andrea** bileraren buru dela, eta jarraian zerrendatzen diren batzordekideak bertaratuta. M<sup>a</sup> Virginia Carcelén García andrea, behean izenpetzen duena, aritu da idazkari-lanetan.

Batzarkide jaun-andre hauek bertaratu dira:

**Encina CASTRESANA ASTARLOA and. (EAJ-PNV)**  
**Gentza ALAMILLO UDAETA jn. (EAJ-PNV)**  
**Ander AÑIBARRO MAESTRE jn. (EAJ-PNV)**  
**Jon ESCUZA DEL CAMPO jn. (EAJ-PNV)**

Ez da bertaratu eta bertaratu ezina adierazi du:

**Joseba VIVANCO RETES jn. (EH BILDU)**  
**Josune IRABIEN MARIGORTA and. (EAJ-PNV)**

Ez dira bilkurara bertaratu Talde Politiko Batzarkideetako bozeramaileak, gonbidatuak izan arren.

Horrez gain, Kuadrillako teknikari Aintzane Arbaizagoitia etorri da, bere arloko puntuak azaltzeko.

Kuadrillako batzordeburu andreak hasiera eman dio ohiko bilkurari, **lehenengo deialdian, 12:10ak** direnean. Idazkari andreak, azaroaren 25eko 63/1989 Foru Arauak, Kuadrillak arautzen dituenak, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.2.c) artikuluari lotuta (besteak beste, abenduaren 2ko 57/2003 Legeak AJAren inguruan aldatzen duena), bere 16. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, saioari hasiera emateko beharrezkoa den quoruma egiaztatu egin du, eta ezarritako eguneko aztergai zerrendari, lehen deialdian, jarraitzeko agindu du.



## 1.- IRAKURTZEA ETA ONESTEA, BIDEZKOA BADA, AZKENEKO BILKURAREN AKTAREN ZIRRIBORROA

Azken bilkuraren aktaren zirriborroa erantsi zen bilkuraren deialdiarekin batera hori aztertzeko. Aho batez onetsi da 2020ko uztailaren 1ean egindako bilkuraren akta.

## 2.- HIZKUNTZA-POLITIKAREN NORMALIZATZAILE BAT HAUTATZEA, LANPOSTU HORRETAKO LANEKO BAJA BETETZEKO

Lanpostu honetarako hautaketa hasi baino lehen, jakinarazi da gizarte eta kultura sustatzailearen laneko baja luzatu egingo dela eta ez dela aurreikusitako datan laneratuko. Ondorioz, lanpostu horren lan-poltsan dauden pertsonak deitu behar izango dira; izan ere, ezin izan da lanpostu horretarako beste lan-poltsa berri bat sortu, ez dagoelako hori eskuragarri begiraturutako administrazio batean ere. Gaia eztabaidatu ondoren, uste da beharrezkoa izango dela egun dagoen lan-poltsa erabiltzea gizarte eta kultura sustatzailearen lanpostua betetzeko.

Kuadrillako hizkuntza normalizazioko teknikariaren laneko bajagatik, eta udalek hala eskatuta, ezarri da aldi baterako kontratu baten bidez bete beharko dela lanpostu hori. Horretarako, Gasteizko Udalari lan-poltsa eskatu zaio, hori berriagoa baita. Hori osatzen duten 40 pertsonen artean, hautaketa honetan parte hartzeko interesa dute honako hauek:

72459363	1. ETXEBARRIA AZCOITIA, JOKIN	12:05ean
72732539	2. HERNANDO MUGICA, NEREA	12:15ean
72742092	3. CUESTA ESPINOSA, YAIZA	12:25ean
72748946	4. AMURRIO GONZALEZ, MADDALEN	12:35ean
72826960	5. GARAIIO MENDIZABAL, BEÑAT	12:45ean
72846282	6. GARAY AGINAGALDE, MAIDER	12:55ean
78866169	7. URRUTIA IZAGUIRRE, MARIA ROSARIO	

Jakinarazi da Urrutia Izaguirre andreak uztailaren 9an telefonoz jakinarazi zuela ez zela bilerara joango. Era berean, Díaz Alonso andreak (aipatutako poltsan zegoen eta deialdia bidali baino lehen esan zuen ez zela joango) uztailaren 14an eskatu zuen curriculum-elkarrizketan parte hartu ahal izatea. Beraz, parte-hartzaileen behin betiko zerrenda honako hau da:

72459363	1. ETXEBARRIA AZCOITIA, JOKIN	12:05ean
72732539	2. HERNANDO MUGICA, NEREA	12:15ean
72742092	3. CUESTA ESPINOSA, YAIZA	12:25ean
72748946	4. AMURRIO GONZALEZ, MADDALEN	12:35ean
72826960	5. GARAIIO MENDIZABAL, BEÑAT	12:45ean
72846282	6. GARAY AGINAGALDE, MAIDER	12:55ean
72749233	7. DIAZ ALONSO, GARAZI	13:05ean



---

Horri dagokionez, erabaki da curriculum-elkarrizketak egingo direla parte-hartzaile bakoitzaren prestakuntza eta laneko esperientzia lanpostuan egin beharreko ekintzekin bat datozen ikusteko.

Hautaketa hasi da (horren ordenan aldaketak egon dira parte-hartzaileak ez zeudelako, elkarrizketek ez baitute irauten parte-hartzaile bakoitzari emandako denbora tartea), parte-hartzaile guztiek C2 maila edo administrazioaren 4 hizkuntza-profila dutelarik:

72459363 1. ETXEBARRIA AZCOITIA, JOKIN: Kazetaritzan lizentziaduna da. Bere prestakuntza eta laneko esperientziaren inguruko aurkezpen bat egin du eta azpimarratu du bere laneko esperientzia kirolaren eta ikus-entzunezko baliabideekin lotutako hedabideetan egon dela kokatuta. Era berean, azaldu du Arrasateko Udalean egindako lana pilotalekua dinamizatzean datzala, administrazio publikoen kudeaketan inongo esperientziarik izan gabe (espedienteak eta administrazio-prozedurak). Eskuragarritasuna du.

72732539 2. HERNANDO MUGICA, NEREA: Itzulpengintzan eta interpretazioan zein Ikus-entzunezkoen komunikazioan lizentziaduna da. Gainera, itzulpengintza eta teknologia berrietako master bat du. Autonomoa da eta itzultzaile lanetan aritu da batez ere; gehienbat beste hizkuntzetatik euskarara itzuli du eta testu administratibo eta juridikoak itzuli ditu orokorrean. Ez du inongo esperientziarik administrazio publikoen kudeaketan (espedienteak eta administrazio-prozedurak). Eskuragarritasuna du.

72742092 3. CUESTA ESPINOSA, YAIZA: Itzulpengintzan eta interpretazioan zein Ikus-entzunezkoen komunikazioan lizentziaduna da. Gainera, ikus-entzunezkoen itzulpengintzako master bat du. Esperientzia du administrazio-testuak eta testu juridikoak itzultzen. Ez du inongo esperientziarik administrazio publikoen kudeaketan (espedienteak eta administrazio-prozedurak). Eskuragarritasuna du.

72748946 4. AMURRIO GONZALEZ, MADDALEN Itzulpengintzan eta interpretazioan zein Ikus-entzunezkoen komunikazioan lizentziaduna da. Itzulpengintzan eta testu juridiko eta administratiboak zein aldizkari ofizialak itzultzen du esperientzia, baita euskarara eta gaztelaniara ingeleseko testuak itzultzen ere. Ez du inongo esperientziarik administrazio publikoen kudeaketan (espedienteak eta administrazio-prozedurak). Eskuragarritasuna du.

72749233 5. DIAZ ALONSO, GARAZI: Filosofian lizentziaduna da. Testuak itzuli ditu eta hainbat lekutan euskara irakaslea izan da. Ez du inongo esperientziarik administrazio publikoen kudeaketan (espedienteak eta administrazio-prozedurak). Eskuragarritasuna du.

72826960 6. GARAIO MENDIZABAL, BEÑAT Irakasle-ikasketak egin zituen eta soziologia eta psikopedagogia graduak ikasi zituen, unibertsitate-ikertzailea da eta Gasteizko Udalaren zein EHUren ikastaroen zuzendari-koordinatzailea da. Espediente akademiko zabala du. Ez du inongo esperientziarik administrazio publikoen



---

kudeaketan (espedienteak eta administrazio-prozedurak). Prestasun konplexua du, arduraldi osoko bekaduna delako.

72846282 7. GARAY AGINAGALDE, MAIDER: Ingurumen zientzietan lizentziaduna da. Turismo teknikari eta ingurumen proiektuetako teknikari gisa du laneko esperientzia. Ez du inongo esperientziarik administrazio publikoen kudeaketan (espedienteak eta administrazio-prozedurak). Eskuragarritasuna du.

Elkarrizketa bukatu eta auziaz eztabaidatu ondoren, aho batez **ONETSI DUTE** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Onestea parte-hartzaileen honako mailaketa hau, horien merituen arabera dena:

1. AMURRIO GONZALEZ, MADDALEN
2. HERNANDO MUGICA, NEREA
3. CUESTA ESPINOSA, YAIZA
4. GARAIO MENDIZABAL, BEÑAT
5. DIAZ ALONSO, GARAZI
6. GARAY AGINAGALDE, MAIDER
7. ETXEBARRIA AZCOITIA, JOKIN

**BIGARRENA.-** Aurreko puntuan ezarritako zerrendaren arabera, **hizkuntza normalizazioko teknikaria kontratatzea.**

**HIRUGARRENA.-** Aipatutako lanposturako Kuadrillaren lan-poltsaren bidez **gizarte eta kultura sustatzailea kontratatzea.**

**LAUGARRENA.-** Aurrekontu-partida aldatzea dagokion gaikuntzaren bidez. Horrela, hizkuntza normalizaziorako teknikaria eta gizarte eta kultura sustatzailearen kontratazioek eragiten dituzten gastuen hazkundeak bere gain hartuko dituzte udalek.

### **3.- OMNIA, AIARA BATUZ ETA OKONDO AURRERA TALDE POLITIKO BATZARKIDEEK AURKEZTUTAKO 4 ERREKURTSOREN BERRI EMATEA**

Batzordeburuak jakinarazi du OMNIA, AIARA BATUZ eta OKONDO AURRERA talde politiko batzarkideek 4 aurretiaz berrezartzeko errekurtsio jarri dituztela, honako jarduketa hauen aurka:

- 1. Kuadrillaren Batzordearen maiatzeko ohiko bilkura ez egitea.
- 2. Kuadrillaren Batzordearen ezohiko bilkura egitea.
- 3. Ogasun Batzordearen maiatzaren 8ko ohiko bilkura ez egitea.
- 4. Ingurumen Batzordearen maiatzaren 8ko ohiko bilkura ez egitea.



---

Bilkuraren deialdiarekin batera 4 errekurtsioak jartzeko idatzia erantsi da, baita errekurtsioei erantzuteko Presidentetza Dekretua.

Batzordeburu andreak errekurtsioen edukiaren laburpen nagusiaren zati bat azaldu du, baita horiei erantzuteko Presidentetza Dekretuaren zati bat ere.

Eztabaida amaitu ondoren, denak jakinaren gainean geratu dira.

#### **4.- AZTARNA ALDIZKARI ETNOGRAFIKOAN IRAGARKIAK ARGITARATZEA**

Azaldu egin da AZTARNA aldizkariaren proposamena; urtero bezala, proposatu digute 54 eta 55. aleetan (2 urtean) 2 iragarki argitaratzea, honako prezio honekin: 300 euro BEZa barne; 150 euro iragarki bakoitzeko.

Eztabaida amaitu ondoren, aho batez **ONETSI DUTE** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Onestea AZTARNA aldizkarian bi iragarki argitaratzea honako zenbateko hau ordainduta eta dagokion aurrekontu-partida gaituta: 300 euro BEZa barne; 150 euro iragarki bakoitzeko. Iragarki aldizkariaren 54 eta 55. zenbakietan argitaratuko dira.

**BIGARRENA.-** Lehenengo iragarkiak sustapen turistikorako edukia izan duenez, batzordeburuari utziko zaio hautatzen bigarren iragarkiaren edukia.

#### **5.- HONDAKINEN ZERBITZUAREN KOSTUAK: OKONDOKO GARBIGUNEAREN KOSTUA FINANTZATZEA**

Arloko teknikariak jakinarazi du 2020ko maiatzaren 20an egindako TGBan behin betiko onetsi zirela hondakinen zerbitzuaren kostuak banatzeko irizpideak. Edonola ere, onesteke geratu zen zerbitzuetako bat, zehazki, "Okondoko Garbiguneko" GARBIKETARI (kudeaketarik ez) dagokiona. Hori CESPAn enpresak egiten du eta horren kostua 2019 ekitaldian 2.699,17 euro izan zen.

Banatzeko irizpide horren azterketa teknikoa egin ondoren, zerbitzu hau banatzeko hiru irizpide posible daude, eta horiek honako hauek dira:

- 1.-** 2019ko abenduaren 11n onetsitako erabakia mantentzea; horren arabera, banaketa-irizpidea zen herritarren ehunekoaren arabera ezartzea. Izan ere, LAP zerbitzu publiko bat da eta edozein herritarrentzat egon behar du eskuragarri, berdin du bakoitza non bizi den.
- 2.-** Kostua banatzea (herrika) Garbigunea ez duten udalerrien artean (Aiara, Artziniega, Okondo).



**3.-** Okondo udalerriri ezartzea zerbitzu honen kostuaren % 100.

**4.-** Proposatutako beste irizpide bat.

Gaiaren harira sortu den eztabaida luzea amaitu da, eta, aho batez **ONETSI DUTE** honako **ERABAKI** hau hartzea:

**LEHENENGOA.-** Okondoko Landa Garbigunea garbitzeko kostua honela finantzatuko da:

- % 50 Okondoko Udalak ordainduko du.
- Gainerako % 50 Aiara eta Artziniegako udalek ordainduko dute honela: herritarren araberako irizpidea ezarriko da. Aiarako Udaleri Luiaondo eta Arespalditzako guneen herritarrak kenduko zaizkio.

## **6.- ZEHAPENA EZARTZEA, BIDEZKOA BADA, CESP A SA ENPRESARI, KONTRATUA EZ BETETZEAGATIK**

Aztertu egin da arloko teknikariak CESP A SA enpresak jarritako bigarren alegazioen inguruan egindako txostena, baita Presidentetzaren Proposamenaren edukia ere, zeina espedientean dauden txosten guztietan funtsatuta dagoen (bilkuraren deialdiarekin batera igorri zen dokumentazioa, hori aztertzeko).

CESP A SA enpresak aztertutako bigarren alegazioak aztertu ondoren, “interesdunari entzunaldia” bigarren izapidean **ERABAKI DA**, aho batez, honako **ERABAKI** hau hartzea:

### **CESP A SA ENPRESAK KONTRATUAREN EZ- BETETZEENGATIK EZARRITAKO ZEHAPENEN PROPOSAMENAREN AURKA AURKEZTUTAKO BIGARREN ALEGAZIOEI EMANDAKO ERANTZUNA**

Aiarako Kuadrillaren Tokiko Gobernu Batzordeak uztailaren 15ean egindako bilkuran, adostu zen zein erantzun emango zitzaion CESP A SA enpresak aurkeztutako alegazioei. Enpresak alegazio horiek administrazio honek irekitako espedientean egin zituen. Espedientea ireki zen Aiarako Kuadrillan enpresari esleitutako etxeko hondakinak eta atxikitakoak (HHS) Bildu eta Garraiatzeko Zerbitzua emateko kontratuan ez-betetze sistematikoak gauzatu dituelako enpresak. Adostutako erantzuna CESP A SA enpresak 2020ko ekainaren 25ean (sarrera-erregistroko zk.: 353) aurkeztutako bigarren alegazioei erantzuteko izango da.

**AINZAT HARTU DIRA** CESP A SA enpresa esleipendunak aurkeztutako lehenengo alegazioak, kontratuaren ez-betetzeengatik gertakari eta zehapenengatik irekitako espedientean emandako lehenengo “interesdunari entzunaldi-izapidean”. Alegazio horiek



---

2020ko apirilaren 21ean aurkeztu zituen (sarrera-erregistroko zk.: 229), esleitutako zerbitzua ematean egondako ez-betetze sistematikoengatik ezarritako zehapenaren jakinarazpena jaso ondoren.

**AINTZAT HARTU DA** CESPA SA enpresak aurkeztutako lehenengo alegazioek, funtsean, 3 oposizio-arrazoi dituztela:

**1.- 34/2020 DEKRETUAN EGIAZTATUTAKO EZ-BETETZEAK EZ EGOTEA EGIAZTATUTA.**

**2.- TIPIKOTASUN PRINTZIPIOA HAUSTEA.**

**3.- PROPORZIONALTASUN PRINTZIPIOA HAUSTEA.**

**1.- 34/2020 DEKRETUAN EGIAZTATUTAKO EZ-BETETZEAK EZ EGOTEA EGIAZTATUTA.**

Arlo honen inguruko arrazoiketa kontratuaren ez-betetze guztien txosten tekniko zabalean oinarrituta dago eta CESPAren alegazio gehienekiko kontraesanak sortzen zituen, baita aitortza txiki, puntual eta garrantzirik gabekoren bat.

CESPAk berak aitortu du atez ateko bilketa eta arrandegien bilketa ez duela bete. Ondorioz, 12.331,72 euroko deskontua izango du.

Gainera, enpresak aurkeztutako alegazioen aurka oinarritu eta egiaztatzeko aurkeztutako txosten teknikoak 3 eranskin handi ditu, eta, horietan, honako hau dago: argazkiak, kontratistarekin elkarrizketak eta ez-betetze zenbatezinen erregistro kronologiko bat.

“Arrazoi beragatik birritan zehapena jartzea” alegazioari dagokionez, lehenengo txosten juridikoan justifikatzen da eta azaldu egiten da bateragarriak direla deskontua aplikatzea zerbitzua ez emateagatik eta ez-betetzeengatik zehapenak jartzea, Legearen eta Pleguen arabera.

Alegazio batzuk, oso gutxi eta puntualak, onartu arren, EZ da aldatzen zerbitzuaren eginkizun guztiak bete ez izana, txosten teknikoko arrazoiketa eta ñabardurekin.

**ONDORIOZ, 34/2020 Dekretuan sartutako bi proposamenak mantenduko dira: eman gabeko zerbitzuak deskontatzea eta ezarritako zehapenen ez-betetzeen kategoriak.**

**2.- eta 3.- TIPIKOTASUN- ETA PROPORZIONALTASUN-PRINTZIPIOAK HAUSTEA**



---

CESPAk alegatu du tipikotasun eta proportzionaltasun printzipioen haustura, eta horrek administrazio publikoen zehapen-ahalmenaren oinarri gisa balio du. **Alegazioak gutxietsi behar dira, bi arrazoi nagusirengatik:**

- **Akats formal bat:** ez garelako administrazioaren zehapen-ahalmena ezartzen ari, **kontratuan dagoen eta zigorra duen klausula bat aplikatzen ari gara.**
- **Beste arrazoi garrantzitsu bat: proposatutako zehapenak kontratuan ezarritakora egokitzen direlako;** hau da, kontratuaren klausulen arabera ezarritako zehapenetako bakoitzaren graduazioaren eta aurreikusitako ekintza egiaztatuen kalifikazioaren arabera dira.

**IKUSI DIRA** CESPА SA enpresa esleipendunak aurkeztutako bigarren alegazioak kontratuaren ez-betetzeagatik gertakari eta zehapenen inguruan irekitako espedientean emandako bigarren entzunaldi-izapidean. Alegazio horiek 2020ko ekainaren 25ean aurkeztu zituen (sarrera-erregistroko zk.: 335). Era berean, aintzat hartu da Arbaizagoitia ingurumen teknikari andreak 2020ko uztailaren 8an igorritako txosten teknikoak. Bertan adierazten du ez direla eman gaiaren inguruan ezarritako espedienteak adierazitakoa aldatzen duten datu edo froga berririk. Beraz, proposatu du zehapenaren proposamena zegoen bezala mantentzea.

**IKUSI DA** zenbait zerbitzu ez emateagatik zehapen eta deskontuen arrazoiak erabat arrazoiturik eta justifikaturik daudela interesdunari jakinarazitako espedienteko dokumentazio eta txosten guztietan; gainera, bi “interesdunari entzunaldi-izapide” eman zaizkio interesdunari.

**IKUSI DA** behar bezala egiaztatu direla, horretarako egindako hainbat txostenetan, CESPА SA enpresak egindako kontratuaren ez-betetzeak, Aiarako Kuadrillako etxeo hondakinen eta atxikitakoen Bilketa eta Garraiorako zerbitzuaren kontratuan.

**AINZAT HARTU DA** aipatutako ez-betetze horien kalifikazioak, agirietan berariaz aurreikusitako kontratuko arau-hausteei dagozkien kategorietan taldekatzeak eta kontratuko arau-hauste horien arabera proposatutako zigorrak mailakatzeak kontratuan aurreikusitakoa betetzen duela, eta kontratistaren betebeharrak betetzea bultzatzeko hertsatzeko funtzioa duela.

**IKUSI DIRA** gai honen inguruan kontratazioan aditua den Umerez jaunak ebaluatutako txosten juridikoak eta Kuadrillako ingurumen teknikari Arbaizagoitia eta Dueñas andreek ebaluatutako txosten teknikoak, espedientean daudenak. Horrez gain, ikusi da 2020ko uztailaren 8an Arbaizagoitia teknikari andrearen txostenaren azken proposamen teknikoak, CESPА SA enpresak Kuadrillari 2020ko ekainaren 25ean (sarrera-erregistroko zk.: 335) aurkeztutako bigarren alegazioei erantzuteko.

Aho batez **ERABAKI** hau hartzea **ONETSI DUTE:**



**LEHENENGOA.-** CESPAS SA enpresak aurkeztutako bigarren alegazioak aztertu ondoren (eta CESPAS SA enpresak interesdunari lehenengo entzunaldi-izapidean aurkeztutako lehenengo alegazioekin lotu ondoren) eta CESPAS SA enpresak aurkeztutako bigarren alegazioei arloko teknikariak egindako txostena ikusi ondoren, erabaki da onestea eta mantentzea apirilaren 2ko Presidentetza Dekretuan ezarritako ebazpen-proposamena. Ondorioz, kontratuaren fakturazioari **hamabi mila hirurehun eta hogeita hamaika euro eta hirurogeita hamabi zentimo (12.331,72 €)** kenduko zaizkio **txostenetan adierazitako hilabeteetan zehar eman gabeko zerbitzuengatik.**

**BIGARRENA.-** CESPAS SA enpresaren alegazioak aztertu ondoren, onestea apirilaren 2ko 34/2020 Presidentetza Dekretuan ezarritako ebazpen-proposamena, eta kontratuaren ez-betetzeengatik, gauzatzeak atzeratzeengatik, betetze akastunengatik eta informazio-betebeharren akatsengatik batzordearen txosten juridikoan eta teknikoan ezarritako zehapenak ezartzea, erabaki honen oinarrietan jasotako arrazoiketaren arabera. Zehapenaren zenbatekoa **hirurogei mila eurokoa (60.000 €)** izango da.

**HIRUGARRENA.-** CESPAS SA enpresari erabaki hau jakinaraztea eta Arbaizagoitia andreak horretarako 2020ko uztailearen 8an igorritako txostena eranstea.

Ondoren, aho batez **ERABAKI DA** eguneko gai zerrendan puntu berri bat sartzea, premiazkoa delako. Beraz, 7. puntu gisa sartu da:

OMNIA, AIARA BATUZ ETA OKONDO AURRERA TALDE POLITIKO BATZARKIDEEN MOZIOA, KUADRILLA ARABAN TURISMOAREN SUSTAPENEAN DEFENDATZEARI BURUZKOA

## **7.- OMNIA, AIARA BATUZ ETA OKONDO AURRERA TALDE POLITIKO BATZARKIDEEN MOZIOA, KUADRILLA ARABAN TURISMOAREN SUSTAPENEAN DEFENDATZEARI BURUZKOA**

Batzordeburu andreak jakinarazi du aste honetan bertan Kuadrillako erregistroan OMNIA, AIARA BATUZ eta OKONDO AURRERA Talde Politiko Batzarkideen mozioa jaso dutela, Aiara eskualdearen defentsaren inguruko erakunde-adierazpen bat egin dadin Araban turismoaren sustapenean. Idatziaren gai nagusia izango litzateke Antonio Resines aktoreak egindako iragarkia; izan ere, horretan ez dago Aiarako Kuadrillaren inongo irudirik.

Gaiaren inguruan eztabaidatu da, eta, hasiera batean, aztertu egin da datorren bilkuran gaia sartzeko zailtasuna. Izan ere, bilkura ezohikoa izango da eta ezingo zaio eskaerari behar bezala erantzun. Gainera, hurrengo ohiko bilkura soilik azarokoa izan ahalko da. "Aiara" marka sustatzeko eskaeraren inguruan eztabaidatzen jarraitu dute; izan ere, orain dela gutxi



---

“Aiaraldea” marka onetsi da eta nahasketaren bat gertatu liteke irudi ezberdin asko hedatuta. Uste dugu iragarkian Gasteiz indartu dutela (finantzaketa Udalarena eta Aldundiarena da), baita Errioxa eta Añanako Gatzaga ere, baina oso gutxi agertzen da gainerako Lurralde osoa, Aiarako Kuadrilla barne. Beraz, komenigarria izan liteke Aldundiari eskatzea eskualde honen kultura-, ondare- eta natura-balioak sustatzeko dagoen lankidetzaren mantentzeko.

Gaia eztabaidatu ondoren, guztiak jakinaren gainean geratu dira.

## **8.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez denez inongo galderarik egin, puntua amaitutzat jo da.

Eta aztertzeke beste gairik ez dagoenez, goian aipaturako eguneko **13:50** direnean, bukatutzat eman da bilkura. Presidente jaunak sinatu du eta nik, idazkaria naizenez, sinatu eta egiaztatu dut.

**KUADRILLAKO BATZORDEBURUA. ENCINA CASTRESANA ASTARLOA.**

**IDAZKARIA. VIRGINIA CARCELÉN GARCÍA**

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA  
DOCUMENTO FIRMADO ELECTRÓNICAMENTE**